

## “Hazkundearen zatirik handiena kontsumoan dago”

Jose Maria Mella katedraduna da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta haren iritziz, krisi ekonomikoa ez da bakarra. Krisi soziala ere bada, politikoa, ekologikoa, ideologikoa eta kulturala. Horrexegatik, haren ustez, sistema aldatzea beste biderik ez dago egoera hau konpontzeko. Egokia iruditzen zaio gehien daukateni zerga gehiago kobratzea eta inbertsio publikoak egitea Osasunean eta Hezkuntzan (horri ez omen zaio gastua esan behar), eta kontsumoa garrantzitsua iruditzen zaio hazteko.

**“Kontsumoa sustatu egin behar dugu ekonomia berriz ere hazi dadin”. Esaldi hori askotan entzun dugu krisia hasi zenetik... Bat al zatoz baieztapen horrekin?** Ez dut inolako zalantzarik: kontsumoa sustatu egin behar da hazteko. Ez da hutsegite bat, guztiz bestela. Hazkundearen zatirik handiena kontsumoan dago; ezinezkoa da haztea zentzuzko kontsumorik gabe. Krisiaren ardura ez da kontsumitzaileena, orain bezalaxe lehen ere ez baitziren iristen hilabete bukaerara. Horregatik ibiltzen ziren bankuak eta aurrezki-kutxak haien atzetik, kredituak arduragabeki eskainiz, orain itzuli ezin dituzten kredituak...

**Hainbat familia aurrezkiak “jaten” ari dira bizirik irauteko. Ekonomia indartzeko helburuz kontsumoa sustatzea, aurrezteko aukera albo batera utzita... Zer-nolako ondorioak ekar ditzake?** Zure galderaren planteamen- duak badu akats bat: ziurtzat ematen du kontsumitzen duenak ez duela aurrezten. Paradoxikoa dirudi, baina ez da. Paradoxikoa zera da: krisi batean, zenbat eta gehiago aurreztu, azkenean gutxiago aurrezten dela, gutxiago hazten delako. Eta ondorio horixe eragin du orain gertatzen ari denak: aurrezki- apaldu egin da, apaldu egin delako etxeetan sartzen den errenta, erori egin

direlako soldatak eta enplegua, eta zergak igo dizkietelako diru-sarrera txiki- nak dituzten herritar taldeei.

**Ekonomia bat hazi dadin, inbertsioa ere beharrezkoa da. Nork egin dezake uneotan?** Hala da. Inbertsiorik gabe ez dago hazkunderik. Inbertsioa, gaur-gaurkoz, Europa erdialdeko herrialdeek egin dezakete (Alemania eta beste batzuk), horiek tira dezakete periferietako ekonomietatik (Espainia eta hegoaldeko gainerako herrialdeak, Irlanda barne). Zaila da hori nola egin behar den esatea, baina etorkizun handieneko arloetan egin behar litzateke, Espainiako ekonomiari dibertsifikatzeko aukera emango diotenetan: informazioaren teknologiak, elikadura arloko industria, bioteknologia, arlo aeroespaziala, energia berriztagarriak, garraioa, kalitatezko turismoa...

**Badirudi murrizketekin geldiarazi nahi dutela krisia. Hori al da formularik onena?** Zerbitzu publikoetan murrizketak egitea suizidio kolektiboa da. Ez dute krisia geldiarazten, larritu egiten dute, eta baldintzarik ez dute sortzen krisitik ateratzeko. Hitzak deabruzkoak dira: “gastu publikoa” esaten diote, baina “inbertsio publikoa” da. Hezkuntzan, Osasunean eta Gizarte Zerbitzuetan egiten omen den “gastua”, egiaz, giza- kiongan inbertitzea da, eta horixe da funtsezko faktorea krisitik ateratzeko eta erantzun egokia emateko herritar- rron ongizateari, zigortua baitago oso.

**Zergak igotzea behar-beharrezkoa dela esaten dute.** Zergak igotzea ez da ez kaltegarria ez beharrezkoa ere. Ez da kaltegarria, zergak igotzeak beti ez duelako kalte egiten; nori igotzen dizkiozun. Beharrezkoa dela esaten dute, herrialde honetan soldatadunek eta Enpresa Txiki eta Ertainek (ETE) soilik ordaintzen dituztelako zergak. Enpresa handiek eta dirutza handiak dituztenek oso ongi dakite zergak nola saihestu.

Zalantzarik gabe, erremedioa okerra- goa da gaitza baino: zerga-erreforma egiten ez bada gehien dutenek gehiago ordain dezaten, Estatuak ez du izango behar adinako aurrekonturik beharri- znei erantzuteko.

**Erakundeek baikortasuna eskatzen dute, baina etxe askotan lanik gabe daude kide guztiak. Nola lotu daitezke bi mutur horiek?** Baikortasun hori itxurazkoa da, eta familiei trufa egitea. Itxurazkoa, ahaztu egiten duelako Espainian maila onartezina iritsi duela pobrezian bizi diren etxeen kopuruak. Eta trufa egitea, ia bi milioi familiatan daudelako kide guztiak lanik gabe.

**Zenbat irauin dezakegu egoera honetan?** Orain ere jasanezina da egoera: lanik gabe dauden ia sei milioi laguntzat, familia langile gehienentzat, krediturik eta bezerorik gabe dauden ETEentzat... Aldiz, finantza-enpresa handiak eta inbertsio funtsak etekina ateratzen ari zaizkio krisiari, beren kapitalak errentagarri bihurtuz...

**Nola atera gaitzake krisitik?** Ez dago makilatxo magikorik. Krisia ez baita ekonomia arlokoa soilik, sistema osoa- rena baizik. Krisi ekonomikoa da, bai, baina soziala ere bai, politikoa, ekolo- gikoa, ideologikoa eta kulturala. Ez dut errezetarik. Nire apalean, hauxe baino ez dezaket esan: aldatu egin behar da sistema, bistakoa delako oraingoak ez duela funtzionatzen. Gehienen zerbitzu- ra dagoen ekonomiari erantzungo dion sistema izan behar du, ez gutxiengo bat asetzen duena, politika demokratiko eta parte-hartzaileak gidatua, ingurumeneko baliabide mugatuak erres- petatzen dituena, elkarlanaren eta auto-kudeaketaren ideiak sustatzen di- tuena, eta herritar guztien eskubideak eta askatasunaren eta elkartasunaren balioak aintzat hartuko dituen kultura batean oinarritua.

*Jose Maria Mella*

Ekonomia eta  
Enpresa Zientzietako  
katedraduna Madrilgo  
Unibertsitate  
Autonomoan

